

Larretako Bidea

Distantzia 3,88 km | **Desnibela** 90 m | **Iraupena** 1h00 | **Tipologia** Itzulia | **Zedarriak** PR seinaleak ibilbide osoan

Jatsuko plazatik, biribilgunera iritsi, pilota plaza ezkerrean utzita. Hartu lehen irteera. Errepidearen bukaeran, stopean, joan eskuinera. Beste biribilgunera iritsi eta hartu lehena eskuinera. Segitu bide-adarkatze batera iritsi arte, eta joan ezkerrean. Jarraitu zuzen, Gailurretako errepidera iritsi arte. Orduan, joan ezkerrean. Ibilaldiaren abiatzea 50 m-ra dago, eskuinean.

GPS datuak: **UTM : 629349 - 4806843 Lat/Long : 43.40332/-1.40259**

Ibilbide labur hau egokia da familiarekin paseatzeko edo natura ingurunean lasaitzeko. Ibilbideak aukera ematen dio ibiltariari larretako natura ingurunea ezagutzeko. Habitat hori zeharkatuz, txilar espezie anitz aurki ditzake oteen artean, baita ingurune horretan bizi den fauna ere. Gainera, paisaia anitzeko ibilaldia da; izan ere, itzulian, oihaneko argigune ederretan eta erreka bazterreko oihanpe goxoan ibiliko da ibiltaria. Zuhaitz lepatu ederrak ikusiko ditu ere. Ibilbide zinez interesgarria da.



1. ZATIA > Larre eta argiguneen artetik

UTM: 629349 - 4806843

Aparkalekuan, bidetik ibili. 60 m urrunago, bide-adarkatzean, joan ezkerrean (SIRTAQUII). Ote-larre bat zeharkatu, eta iratze-lursail batera iritsi. Haritz lepatu ederrez osaturiko oihan batean sartu eta jarraitu bide zabaletik. Bidegurutzean, zuhaitzak pasatu eta 50 m geroago, bidea utzi eta eskuineko bidexka ttipia hartu. Bideak bihurtzean, gero, bidea bidexka bilakatzen da (SIRTAQUII). Departamenduko errepidearen bazterretik ibili, abiapuntura iritsi arte.

2. ZATIA > Oihanpe lasai batean

UTM: 630143 - 4806896

Argigunearen behealdean, joan ezkerrean, oihan bat zeharkatu eta zuhaitzek estali gabeko beste gune batera iritsi. Gune hau zeharkatu, eta haritz handi baten heinean, bide zabal bat hartu eskuinera. Argigunearen behealdean, bidexka ezkerrean doa, oihanpe batean sartzeko. Errekatxo bat zeharkatu eta eskuineko bidexka nagusian gelditu. Errekaren ezkerreko bazterretik ibili. Errekatik urrundu, gero eta gehiago igotzen den bidexkatik joanez. Pixka bat zutagoa den igoera zatiaren ondotik, joan eskuinera, bidexka belartsu batetik.



3. ZATIA > Zuhaitzkadun larreetatik itzultzea

UTM: 630218 - 4807489

Zuhaitzik gabeko larre batean ibili, ageriko ibilbidean. Gero, oihan bat zeharkatu, labur. Bideak larre batetik jarraitzen du, eta bide batera iristen da. Bide horretatik zuzen jarraitu. Hurrengo bidegurutzean, joan ezkerrean. Bidetik jarraitu. Gero, bidea bidexka bilakatzen da (SIRTAQUII). Departamenduko errepidearen bazterretik ibili, abiapuntura iritsi arte.



INTERESGUNEAK

❖ Larreak


Oihan-inguruneranzko bilaera naturalaren hein jakin bat dira ote eta txilarrez osaturiko larreak. Euskal Herriko larreetan sei txilar espezie daude, haietan txilar kantauriarra, Frantziako hego-mendebaldean baizik aurkitzen ez dena. Gainera, larre hauetan fauna tipikoa dago. UTM: 629553 - 4806901

❖ Haritz lepatuak

Hemengo haritz kandudun eder hauek lepatuak dira. Zuhaitz hauek hamarkadatan behin eta berriz mozketa ttipiak jasan dituzte. Horregatik dute forma berezi hau. Mozketa horiek askotan egurra lortzeko egiten dira eta zuhaitzari orbain gisakoak eragiten dizkiote. Zuhaitz hauek intsektu saproxilikoentzat geriza leku egokiak dira, hildako egurrez elikatzen baitira; eta, haien harrez elikatzen diren txorizentz -haietan, okilarentzat- ere bazka lekuak dira. UTM: 629553 - 4806901

❖ Ota-txinboia

Larreetan bakarrik bizi den martxuka txoria da. Ota-txinboia oso hegazti diskretua da, arraren kantuari esker entzun daitekeena. Ikusten oso zaila da, eta begiaren inguruan zirkulu gorri berezi bat eta lumadi nagusiki gris bat ditu. Espezie babestua da.



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

| | PR® TOKIKO BIDEXKA | GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA | GR® IBILBIDE LUZEA | VTT BIDEXKA |
|-----------------|-----------------------|------------------------------------|-----------------------|----------------|
| Norabide ona | — | — | — | ▲ |
| Itzul ezker | └┘ | └┘ | └┘ | ◀ |
| Itzul eskuin | ┘└ | ┘└ | ┘└ | ▶ |
| Norabide okerra | ✕ | ✕ | ✕ | ✕ |

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.